

ttipi-ttapa

1990eko Azaroak 22

50. zenbakia

dohain banatzen da



FRANTXISKAREN SASKIA

LEHIAKETA

Hamabostaldi honetako sariak



Merkaderes 9, DONEZTEBE

Kotoizko jertse bat



JATETXEA

LA VILLA

Tfnoa: 63 72 90 - IGANTZI

Afari bat bi lagunentzat



EZKALO

Intzakardi 8, Tfnoa: 45 00 54 DONEZTEBE

Baserri batentzako arrisku-guzitarako aseguroa urte batetarako  **La Estrella**

Laia

MUSIKA DENDA

Altzate 36, Tfnoa: 63 05 15 BERA

Compact disk bat

Portada moztu nahi ez baduzu, idatz ezazu erantzuna eta zure datuak paper batean eta abenduaren 6a baino lehen guri bueltatu. Animo! Zuk ere eskura dezakezu sari bat! Lehendabiziko hamabostaldiko sariak honelaxe banatu ziren:

Tximeletak emandako **jertsea**, Berako **M.Paz Martinezi**; **La Villak** emandako **afariak**, Zugarramurdiko **Mikel Mitxelenari**; **Ezkalok** emandako **aseguroa**, Amaiurko **Asun Urrutiari** eta **Laia musika dendak** emandako **compact diska** Iruñeako **Idoia Mujikari**, Kartak, **Goiko Argazki Dendako** **Martin Goikoetxeak** atera zituen.

Galdera: Azaroaren 1ean, zenbat **ttipi-ttapa** banatu ziren guzira?

Erantzuna:.....

Izen-deiturak:.....

Helbidea:..... **Adina:**..... **Tfnoa:**.....

Gusto baduzu, erantzun ezazu galdera eta guri bueltatu lehenbailehen: **ttipi-ttapa**, Frantxiskaren Saskia, Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA

Herri- non

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/21 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 22 50. alea:**
- Berriemailaren bakardadea
 - **ttipi-ttapa**ren zabalkunde datuak herriz-herri, azaroaren 1ean.
 - **ttipi-ttapa**k antolaturiko I. Narrazio labur, komiki eta argazki lehiaketaren oinarriak.
-
- 26 KIROLAK:**
Mattari.
-
- 28 OSASUNA**
Benedicto Agirre
-
- 29 ARO BERRIAREN ATARIAN:**
Fermin Alzuguren
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-
- 31 DENBORAPASA**
Enbido
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 3.400 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Kar-mele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txoperena, P. Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Mañone, Antton, Patxi Petrirena, Olain Elkarrea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldia Argazkiak, Mattari, Fermin Alzuguren, OMT eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** **ttipi-ttapa**. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Nafarroa-ko Gobernua. **Inprimategia:** Jomisa (Irun)

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazita-ko erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa088

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428/637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun587039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaie592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614444

Nafarroako ospitalea102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia262700

Gurutze Gorria226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Elizondo (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaie592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzarar515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630104

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

Deialdiak

► **Beran**, azaroaren 19an, Bortzirietako Euskara Mankomunitateareko Batzarrearen bilera. Gaia: 1991. urteko plangintza eta aurrekontua.

► **Beran**, azaroaren 29an, Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakikorraren bilera.

Hitzaldiak

► **Lesakan**, azaroaren 28an, asteazkena. Herriko Etxean, arratsko 9etan. GAIK:

tsako 9etan. GAIK:

- Mendi zonaldetako etorkizuna
- Nekazal turismoa.

HIZLARIA: Mikel Petrirena, EHNE-Nafarroaren lehendakaria.

Botikak

• **Azaroaren 10-11an**, Bera, Ituren eta F. Iturralde (Elizondo).

• **Abenduaren 1-2an**, Arantza, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo)

• **Abenduaren 1-2an**, Bera, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo)

Dantzaldiak

► Lesakan:

• **Azaroaren 25ean**, Plazan, 7.30etatik aurrera BASAKABI taldearekin dantzaldia.

• **Abenduaren 2an**, Plazan, 7.30etatik aurrera ARKAITZ taldearekin dantzaldia.

• **Azaroaren 28an**, Plazan, 7.30etatik aurrera MARTIN eta bere taldearekin dantzaldia.

• **Azaroaren 29an**, Plazan, 7.30etatik aurrera JOSELU ANAIK taldearekin dantzaldia.



Bota bertsoa



Estitxu Fernandez

Gaia: Intsumisioa

Doinua: Leiho ertzetik entzun dezaket

Nork ez du entzun azken aldian hain modan dagon golkoa soldaduskaren aurka borroka ta eztabaida mordoa behingoz euskadi hontaz askatuz eman dezagun pausoa alternatiba hor doa bera da intsumisioa (bis) espainiar erakutsiaz geurea dela geroa Euskal Herria benetan dela libre izateko jaioa (bis)

Geurea ez den herria eta zapaltzen gaitun jendea nola nahi dute bandera horri muxu bana ematea guk badauzkagu gure ikurriña hizkuntza ta lurraldea onena orain hastea intsumiso egitea (bis) altxa buruak eta jarraitu honela hartuz aurrea gure borrokaz Euskal Herria bihurtu arte askea (bis)

AGENDA

Ibilaldiak

Elizondon:

•Azaroaren 25ean
"Mendigoizaleen Eguna".

Kontzertuak

Lesakan:

•Azaroaren 24ean,
ATXASPI ostatuan arratseko 10etan MALA FAMA taldea.

•Abenduaren 1ean,
ATXASPI ostatuan, arratseko 10etan JULIO CAQUETA.

Feriak

•Lesakan, azaroaren 28 eta 29an.

Goizeko 11,30etan hasiko da Bortzirietako betabere, bigantxa, zaltabere eta ahareei irekitako Azienda lehiaketa.

Gastronomia

KANUTILLOAK

Osagaiak

Kilo erdi irin, olio kopa erdia, anis kopa laurdena, 2 azukre goilarakada, 2 "Royal" sobre eta esnea eta ur epela nahasirik.

Irina,olioa, anisa, azukrea eta "Royal"a bota. Esnea eta ura poliki poliki boteaz oratu, masa arrotua eta eskuetara ez pegatzeko modukoa gelditu



Kontxita Vicentek emana.

LA VILLA Jatetxea,IGANTZI

arte. Ordu erdi pasatuta, ahal bezain fin zabaldu,

tirak egin, moldean paratu eta frijitu. Esnegaina edo kremaz bete eta beroak serbitu.

Krema pastelera egiteko **osagaiak**: esne litro bat, 6 gorringo, 6 azukre goilarakada eta Grand Manier kopa bat ronakin nahasia.

Gorringoak, azukrea eta likorea nahasi. Esnea irakin eta poliki poliki beste pastarekin nahasi eta sutikian paratu irakin arte.

Baserriko feria

•ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 4.100pzta. **Zerri gizona** (95-100): 137 pzta./kilo bizirik. **Urdamak**: 75 pzta./kilo bizirik.

•BEHIKIA

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra.....590-620
1.koa.....540-580

2.koa.....430-480
Urruxak: 25-50 pzta. gehiago.

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

Baztango aretzea: 690-700 pzta/kg. Kanal.

•Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 350-370Pzta./Kg. Kanal. Behi

gorri ons: 420-450 Pzta / Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(9-15 egun):

Nabarrak: urruxak 18-23.000 eta Idixkoak 22-30.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 23-33.000 eta idixkoak 28-38.000 Pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



SANTAMARIA

Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro
mota
guziak

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

GRUPO



ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

Irratia

Xorroxin Irratia

Bortzirietako eskoletan Azaroan egingo dituzten irratiaoen zerrenda:

- 19, 20, 21, 22 et 23an Lesakako Ikastolatik.
- 26, 27, 28, 29 eta 30ean Etxalarko Eskolatik.

Baztan-Malerrekarako eguneroko programazioa

- 8,00tik 12etara: Musika.
- 12etan: Egunon.
- 12,05: Etxeko lanak.
- 12,15: Konkurtso kulturala.
- 12,30: Egunkariak begiratzuz.
- 12,45: Nafarroan zehar
- 13,00: Herriz herri.
- 13,25: Oharrak, etab.
- 13,30: Gaur (Egunero gai desberdin bat).

Ondoren, konkurtsoa, dedikatoriak eta musika arratsalde osoan zehar.

Musika

"Empty Places", Laurie Anderson - 1990

1947. urtean Illinoisen jaio zen neska honek, nahiko hitz erran erazi du bere lan bereziei buruz.

New York-en biolin eta beste zenbait ikasketa egin ondoren, 1975ean egin zuen bere lehen erakustaldi musikalizatua, bideo artista eta poeten laguntzarekin.

Grabaketa estudioak ere atak zabaldu zizkio-




ten eta urte batzuz 4 LP argitaratu zituen. Neska honen garrantzi haundiena estzenarioan ikusten da.

Hiru urte deus argitaratu gabe egon ondoren,

duela hilabete batzu "Strange Angels" diska argitaratu zuen, diska horren hitzak gaur eguneko gai-sozialei buruzkoak: politika, ezberdintasunak, Sidaren aurkako eraginak etabar. Testoa, musika, imajina, eta pertsona bakarra estzenarioan. "Empty Places" du espektakulo berri honek izena eta Barzelona, Madrid, Gijon eta Donostian arituko da ibilaldi honetan.

Bideo berriak



► "Arma letal 2", USA, 1989, Richard Donner..

Bigarren "Arma letal" honek lehenak baino hiru aldiz arrakasta haundiagoa eduki du pantaila haundie-

tan irabazi duen diruari begiratzuz. Droga trafikatzailak, lehergailuak, diplomatikoen munduak, hirugarrena ikusteko gogoarekin gelditzen gara.

BIDEO CLUB BERA
BIDEO BELAI - LESAKA

► "Kick boxer", USA, 1989, Mark di Salle..

Polizia izandutako batek bere bizia zuzendu nahi du kartzelatik irten ondoren, baina bere emaztearekin elkartzean lehenagoko egingizunetan hasten da



berriro. Arte martzial ugari eta estzena gogorrak.

Nahiko exhibizio egiten da Muay-thai arte martzial berri hortaz.

BIDEO CLUB BERA



ZAGIT
Taberna. JARAUTA, 98.
IRUÑEA. Tfnoa: 22 14 40

IRUBIDE

ostatua
erretegia

Tfnoa: 63 71 27 LESAKA

«U S O A»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

GAZTAÑAGA

Taberna

Bokadilloak eta pintxoak
Tfnoa: 610708 - LEITZA

Fco. Martin Aiestaran

BURDIN-LAN ARTISTIKOA
450235 - ELGORRIAGA

HERRIKO OSTATUA

Tfnoa.: 59 43 25

ITUREN

Xorroxinen alde, mozioak Udaletan eta eskoletan plantoak

Nafarroako Gobernuak FM lizentzia banaketari buruz berriki hartutako akordioak, protesta ugari azaleratu ditu Nafarroa osoan.

Horien artean eta inguru honetan bete direnetara mugatuz, aipatzekoak dira Baztan, Malerreka eta Bortzirietako ikastetxeetan aza-

roaren 15ean "bertan planto" izenez egin ziren geldialdiak.

Bide beretik eta Xorroxin irratia aurkezturik, mozioak sartu dira inguruko udaletan, "oraingo egoeraren aintzinean, Nafarroako Gobernuak nolabaiteko aterabidea eman dezala eskatzeko".

061 Bortzirietan

Azaroaren 12tik aintzinerara, 061 zenbakia izanen da larrialdietako telefono-zenbaki berria Lesakako Osasun Eskualdean, honako ordutegiarekin:

- Astegunetan eta bertako jai egunetan: arratsaldeko 3etatik biharamuneko 8etara.

- Asteburuetan: Larunbat goizeko 8etatik astelehen goizeko 8etara.

- Jaiegunetan: Egunaren 24 orduetan.

EAren mozioa, Udaletan


"Beren saioa Euskaraz betetzen duten bi irratiei, Nafar Gobernuak funtzionamendu baimenak ukatu egin dizkiela eta:

1.- Botere publikoei dagokiela *beren herrikoen oinarritzko eskubiak errespetatzea*: informazioa komunikabideetatik *ama-hizkuntzan* hartzea, adibidez.

2.- "Vascuence"-arena bezalako lege bat egin eta gero *gainera* hankaperatu egiten duten agintariak ez ditugula onartzen Nafarroan errepresentatzailatzat.

Guzti horrengatik, *eskatzan diogu N.G.ri berehala birkonsidera dezala* lehen aipatutako *bidegabeko neurria*, eta emandiezaiotela *Xorroxin eta Euskalerrira irratiei legearen babespean erretransmititzeko baimena*.

Baztan-Bidasoako EA



Feriak Donezteben. Aurtengo edizioari dagokion argazkia duzue haxe. Antza denez, oraingoan azkeneko urtetan bainoazienda gehiago ikusi ahal izan da. Jendea, berriz, ez hainbertze. Gogoratu beharrik ez, azaroaren 28 eta 29an Bortzirietako feriak izanen direla Lesakan.



BATZOKI
JATETXEA
OSTATUA
Tfnoa.: 63 79 31
Lesaka

J. M. ANDUEZA
Elektrizitate instalazioak
Bidasoa 77, Tfnoa: 63 08 54
BERA

MEKANOTERAPIA ZENTROA
LUR APAL

BIZKARRA - ARTRITISA - ZAINAK - STRESA
Plaza Zaharra 7, Tfnoa: 63 70 11 LESACA

TXOKO
ERRETEGIA

Bazkari, afari eta
gosariak ematen dira

ITUREN
Tfnoa.: 45 04 91

EUSKARA

Euskara da gure hizkuntza; txiki txikitandik amak edo aitak lehendabiziko hitzak euskaraz irakatsi zizkiguten. Baina pentsatzen hasiz gero, hemen-dik urte batzutara, gure bilobak, adibidez, irakatsi ahal izango diete beren seme edo alabei, euskara? Biziko ote da gure hizkuntz zahar maitea? Gaur egun nola dago euskara? Denok dakigu ito beharrean dagoela. Itotzen ari dira eta gara. Gero eta erdaragehiago aditzen da inguruan.

Izan ere, jendea lotsagarria da. Adibidez, zenbat eta zenbat haur izango dira ikastolara joaten direnak eta gero kanpora atera orduko erdaraz mintzo direnak? Zenbat, jaietan zigarro bat eskuetan hartu dutela eta, erdaraz mintzo direnak? Baina hau zergatik, euska-

raz mintzatzen dena gutxiago al da ba? Zergatik iruditzen zaio jendeari euskalduna izanik erdaraz hitzegiteak haunditzen duela?

Erdara, hizkuntzarik nagusienadela ari zaizkigu sartzen buruan. Bestela, bat bere herritik atera orduko, berak ezagutzen ez duen batekin, zergatik izaten du lehendabiziko hitza erdaraz? Denda batetara joan eta, lehendabiziko hitza erdaraz: "behatza" egiten duzula, lehen hitza erdaraz; edo edozeini ordua galdetzeko ere, erdaraz. Benetan lotsagarria!

Euskarari bere garrantzia kentzen ari gara. Herri bat gara, eta hizkuntz zahar maite bat ere badugu. Denok harro erran beharko genuke, euskaldunak garela.



Marta Iturria
72.676.324

BANTANGO UDALEKO JAUNTXOEI

Sumatzen zena konfirmatu duzue, zuentzat irakaskuntzak ez du garrantziarik...

Azaroaren 16a da gaur, kurtsoaren hilabete terdi iraganik, momentuz Oronozko institutorako Ministeritzak eta Diputazioak emandako diruarekin erositako materialarekin, liburu batzu ekartzerik izandugu, hainbat ordenadore eta altzariak.

Administraritzatik ez dakit zer zerrenda zaila egin behar duzuelarik -hagitz zaila hilabete terdiko epea nahikoa ez izateko- ez dugu deusekarri ahal izan; liburutegitik, hor ere guztia Diputazio eta Ministeritzak emandako diruarekin erosia, ia-ia deus. Bahitu al duzue, zuek jakinen duzuen erabilpenarako zenbait liburu -literatura eta kolek-

zioak, zurrumurruek dioenez- zuendako gorde nahi bait dituzue.

Botere eta lege guztien gainetik, ohore guztien azpitik, bertzen diruarekin erositako gauzetaz jabetzen dena?

Eraikuntza zuena dela? Udalarena? Eta barruan dagoen guztia horren arabera? Legeak zer dioen ez dakit, moralitateak bai.

Hauteskundeetan baliogarri izanen zaizue. Institutoaren kokapena lorturik bere funtzionamen-

dua oztopatzen duzue. Hori ere botu tresna bat bezala erabili duzue. Botere eta harrokeria Jainkotzat hartzen bait da!



Lekarozko irakaslea

SAROB okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ETXEGARAI

BIDEO KLUBA

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

Telebista eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra


"Letrakit" erakusketa ibiltariak euskal literatura eta alfabetatze prozesua ezagutarazi zituen

Lau egunez egon zen Toki - Ona futbol zelaian



Guzira 197 perretxiko mota bildu ziren erakusketarako

Roman



Letrakiten erakusketa futbol zelaian egon zen

ROMAN HARRIBILAGA

Arrakasta osoa lortuz, azaroaren 9tik 13a arte egon izan da Berako Toki-Ona futbol zelaian eraikirik Euskal Herriko Ikastolen Konfederakundearen didaktika ardurapean Gasteizko Gobernua, Euskaltzaindia eta UNESCOren antolaketa eta babesarekin zabalduko "Letrakit" erakusketa ibiltaria.

Euskal literatura eta azken hogeitamar urteetan burututako alfabetatze prozesua ezagutaraztea izan da "Letrakit"en helburua, biak ospe maila garrantzitsua lor dezaten euskaldunen artean.

Horretarako, Euskal Herriko zazpi herrialdeetan kokaturiko herri euskaldunetan barrena, lehen aldi batean 1.000 m²ko azalerako denda erakusketa antolatu da, hiru moduloz osaturik: umeena, gazteena eta orokorra. Zena bait idazle euskaldunek -Etxepare, Juan Antonio Mogel, Txomin Agirre, Orixe, Lauaxeta, Lizardi, Gabriel Aresti, Txillardegi, Bitoriano Gandiaga, Joseba Sarrionandia, Bernardo Atxaga, Arantxa Urretabizkaia eta Andu Lertxundi, bertzeak bertze- buruturiko lanak, eta alfabetatzearen historia, Rikardo Arregi pertsonaia nagusizat hartuz izan dira bertan ikusgai.

Perretxiko erakusketarekin "Kultur ihardunaldiak" bukatu

Bezperako irtenaldian bilduriko perretxikoen erakusketa eta Herri Kiro-lak agerraldiarekin eman zitzaion bukaera Gure Txokoa Elkarteko Kultura sailak antolaturiko aurtengo "Kultur Ihardunaldiak" egitarauari.

Perretxikoen gaiarekin izan diren hitzaldiak eta adierazitako mikologi egintzak Aranzadi Natur Zientzia elkartearen laguntzaz Bidasoako Ehiztari eta Arrantzaleen Elkartea, Iruñeko Udal Aurrezki Kutxa eta Berako Udalaren antolaketa eta

babesa izan zuten, guztiek beratarren artean ikusmin handia sortu zuten, erakusketa egunean batez ere, aurkezturiko 197 perretxiko moetek jende ugari erakarri bait zuten.

Udal langileak euskalduntzen

Jose Garzia, Esperanza Aranibar, Jesus Agirre eta Rosa Sein dira Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatu dituen euskalduntze-alfabetatze ikastaroetan diharduten Berako Udal langileak, hamabosteko taldea osatzen duten bertzeekin, baita Osasundegiko zazpi gehiagorekin ere Lesakan euskara ikasi edota lantzen ari direnak.

LESAKA

Bortzirietako feriak Azaroaren 28 eta 29an ospatuko dira

Azienda lehiaketan banatuko diren sariak bikoiztu dira zenbait kasuetan

AITOR AROZENA

Nafarroako erregeak, 1.499garren urtean emandako aukerari jarraituz, aurten ere Lesakan ospatuko dira Bortzirietako feriak, hilaren 28an eta 29an.

Urtero bezala, asteazkenez eta ortzegunez egonen da Plaza Zaharrean eta Bittiria karrikan barrena paratuko diren mota guztietako postuetan kuxukeatu edota zerbitu erosteko aukera, beti ere feriek izaten duten giro ezin hobeaz lagundurik.

Egitaraua

Lesakako Udalak antolatzen dituen aurtengo feria hauetan ez dago berrikuntza haundiegirik, egitarauari dagokionez behinpehin:

• **Asteazkena, 28:** Arratseko 9etan, mintzaldia Herriko Etxean:

Gaiak:

- Mendi zonaldeetako etorkizuna.

- Nekazal turismoa.

Hizlaria: EHNE - Nafarroako lehendakaria den Mikel Petrirena.



Aziendak, traktoreak, besta... Heldu dela ferietako saltsa

Arratsaldeko 7etatik aintzina, trikitixa Plaza Zaharrean, Martin eta bere taldearekin.

• **Ortzeguna, 29:** Goizeko 11,30etan, azienda lehiaketa Plaza Zaharrean. Ordu hori baino lehen aurkeztuta egon behar diren aziendak, sei mailetan banatuko dira:

Alde batetik, betabereak eta bigantxak kategoriari egonena dira, hauetan holandesak eta suizak desberdinduko direlarik. Bertalde, zaltabere eta aharietzat kategorian banatzen da.

Eguerdian eta arratsaldean,

Lazkano eta Larrañaga bertsolariak giroa alaituko dute.

Arratsaldeko 5etan: Profesionalen arteko pilota partiduak, Arkupe elkarteak antolatuta herriko frontoian

7,30etatik aintzina, dantzaldia Plaza Zaharrean, Joselu Anaia taldearekin.

Sari garrantzitsuak

Berrikuntza haundirik ez badago egitarauan, azpimarratzekoa da azienda lehiaketaren sariak izan duten igoera nabarmena.

Mailaz maila begiratu

gero, 30.000 pztatoko saria jasoko du lehen gelditzen den betabereak, 25.000 pza bigarrenak eta 15.000 hirugarrenak, bai holandesak eta bai suizak mailetan. Bigantxei dagokienez, 12.000 pza jasoko ditu lehenbizi sailkatutakoak, holandesak zein suizak. Zenbatu eta sailkatu izan ez diren betabere eta bigantxei 5.000 pztatoko dieta emanen zaie (aintzineko urteetan 1.000 pza. izaten ziren).

Zaltaberetan, lehen sailkatuak 20.000 pza jasoko ditu, 15.000 bigarrenak eta 8.000 hirugarrenak. Sailkatuak izan ez diren zaltabereak, 2.500 pztatoko dieta jasoko dute.

Azkenik, ahareetan, lehenbizikoak 5.000 pezeta, bigarrenak 3.000 eta hirugarrenak 2.000 pezeta jasoko dituzte. Sailkatu ez direnei, berriz, 1.500 pztatoko dieta emanen zaie.

Gogoratu behar da Bortzirietako aziendak har dezaketela parte, saneatuak badaude eta aziente-kin datozen pertsonak guttienez 18 urte izan behar dutela.



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

ARRATZUBI ARDOTEGIA

Tfnoa.: 63 72 79, Bittiria karrika - LESAKA

FONDA XATURETXEA


Tfnoa.: 63 70 27
LESAKA

Goikolandako lur zati bat hiritze edo urbanizatzeko projektua

PELLO APEZETXEA

Planoan ikus daitekeen bezala, Buxungo erreka ondoan U.U.9 zenbakiaz markatutako lur zatia da. Erreka ondoan, batzutan erreka lekua bera ere, karrika bihurtuko da proiektu honen arabera, sei etxe jasotzen ahal izanen direlarik. Bortz metro zabaleko karrikari 70 zentimetrotako espaloiak (azetak) lagun egingen dio bi aldeetarik, erreka zati batzutan estalia joanen delarik. 80 zentimetrotako diametroko tubotan sartua, bertzetan berriz agerian. Ur garbi eta zikinen bidea, baita argiaren eta telefonoaren hariak ere, lurpetik joanen dira.

Hala dio, behinipehin azaldutako egitasmo edo proiektuak.



U.U.9a da urbanizatuko den lur zatia

Urtarrilean zabor bilketa berria hasiko da

Jakina denez, Bortzirietarako zabortegi berri eta bakarria prestatzen ari dira, Berako dermioan kokatua. Urte berrirako akautua egonen delakoan daude, antolaketa berria martxan orduantxe jarriko

delarik; zera erran nahi baita, zabor ontziak karriketan paratzea, jendeak nahi duenean beraietara zikinak botatzen ahal dituela, eta zakar ontzietatik jasota Berako zabortegira eramatea.

Herriz-herri zaborrak kamionaz bildu eta garraiatzeko bi eskeintza badira, Berakoa bat eta

Igantzikoa bertzea: hiru urtetako lana 52 milioi pezetaz egingen luke batak, 42 milioiz berriz bertzeak. Kamionak eta tresneria – zabortegian bota, zelaitu eta estaltzekoa– Bortzirietako Mankomunitatearekin izanen dira, baita beraien mantenimendua ere, gasoila izan ezik; hau garraiolariaaren kontura izanen baita.

Etxeko sutarako egurra Arboztan markatuko da

Etxeko sutarako banatzen den egurra aintzinetik markatu behar izaten denez, hurrengo urtekoaren markaketa Arboztan egitea erabaki du Udalbatzak, Bagoleko Borda alderanzko alderdian. Baserri auzoentzat, betiko ohituraren arabera jokatu da.

ARANTZA

Lau gazte zozketatuak soldaduskara joateko

JON LARRETXE

Aurtengoan 4 gazte ziren soldaduskara joatekoak eta joan den igandean egin zen zozketan leku hauetara joatea tokatu zaie:

Inazio Madariaga, Pirineo okzidentalera.

-Tomas Goia, Estre txoko itsasora.

-Juan Carlos Leiza, Pirineo okzidentalera.

-Xabier Alzuri, Kantauri itsasora.

Beraz, hauetatik biri marinara tokatu zaie; espero dezagun hauek joan

orduko "Pertsikoko sua" itzalirik egotea edo behintzat harat joaterik ez tokatzea.

Ezkontza sonatua

Joan den larunbatean Azaroak 10 ezkontza ikusgarria ospatu zen Arantzán. Tere Berau

Aranaztarra eta Antonio Rodriguez beratarra ziren ezkongaiak. Eta noski, hau dantzaria izaki, 50 bat dantzari azaldu ziren ospakizunetara. Adin guztietakoak dantzariak zeuden eta jantzi tradizionalak

(bertze aldean segitzen du)

jantzirik "arkua" egin zieten ezkongaei elizako atarian. Azkenik, bi dantzarik aurreku bana dantzatu zieten baita.

Tamalez, eguraldi txarrak piskat hondatu zuen ospakizuna. Gero bazkaria izan zuten Almandozko Beola Jatetxean.

Lehendabiziko bildotsak hasi dira

Negua laister dugu eta garai izaki, dagoeneko zehazkiak gara lehenabiziko bildotsak ikusten. Jadanik bizpahiru baserrietan badaude, beraz eguberrietako umerria eskasirik ez da egonen. Aurtengoan ardiak sasoian jautsi omen dira mendietatik, bagatxa dela eta edo nonbait ongi



Artxiboa

hornituak pasatuko zuten udazkena.

Aurtengoan ere Antzerkiak izanen

Lehengo urteetan antzerki ederrak ikusiz urtea bukatzeko parada izan

dugu eskolako haurren eskutik.

Aurtengoan ere badirudi aukerarik izanen dugula, izan ere, hor somatzen bait ditut gaztetxoak erropak prestatzen, saioak egiten eta abar.

Denboraz hasi dira eta ziur nago ikuskizun ederrik ikusi ahal izango dugula urtearen azken aurreko egunean antzerkilari gaztetxo hauen eskutik.

Oraindik luze bada ere, eta gerora xehetasun gehiago emango baditugu ere joan zaitezte irri ederrak egiteko prestatzen, aukera izango baitugu. Ziur nago.

Azkilarretako mendietan hobekuntzak

Bai, hor ari dira jotake, Miguel, Jesus, Jose eta abar... zanga ideki, tubo bota, aska egin eta zenbait hobekuntza egiten lur komunetan, aziendak erosoago ibil daitezten.

IGANTZI

Bukatu da Igantziko mendien arazoa

1.666 hektareetatik bakarrik 68 geratu dira hitzarmenetik kanpo

OSKAR TXOPERENA


Hitzarmena sinatzeko epea bukatu denez eta honek emandako datuak ikusirik, Igantziko mendietatik azken 15 urte hauetan izan diren arazoak eta ezin moldatuak ia-ia bukatuak direla erran daiteke.

Epea Urriaren 5ean betetzen zen eta hauexek dira egun horren ondoren gelditutako datuak:

Afektatuak 115 ziren hasiera hasieratik. Haueta-

tik 106 lagunek sinatu dute hitzarmena Udalarekin. 9 geratu dira berriz

sinatu gabe, hauetatik lau kanpotarrak direlarik. Bertze modu batetara erra-



teko, Igantzik dituen 1.666 hektareetatik 68 geratu dira hitzarmenetik kanpo (45 batenak dira). Honek suposatzen du %4a dugula zalantzetan oraindik. Dena den, Udalak garbi dauka guzti hau bere izenean paratzea.

Berri honek daukan garrantzia zenbatekoa den jakin ahal izateko, Igantzik azken urteetan bizi izan duen egoera soziala nolakoa izan den jakitea bertzerik ez dago.



(bertze aldean segitzen du)

Hemendik aintzina, bakoitzak eskutan zer duen jakinik, bertze arazo batzuri eman behar lioke bere bultzada Igantziko jendeak. Burukominik handiena alde batera utzirik itxaropentsu agertu gaitezke.

Plantazio berriak

Mendiak alde batera utzi gabetenik, plantazio asuntotan sartuko gara

oraingoan. Azken urte hauetan bezala hasi dira dagoeneko mendiak prestatzen, laister plantak sartzeko. Aurtengo neguan Erroizkerrekan paratzeko idea dago. 2.000 zulo egin dira orain arte eta lanean ari direnak langabezian zeuden gazteak dira. Hasiara batean, "Pino Caricio", bagoa eta, nola ez, haritz amerikanoa paratzeko intentzioa dago.

Sarrolako bide moldaketa

Bentarako bidea moldatzen ari direla aprobeztatuz, piseotatik kruzera moldatu dute baita ere. Izugarrizko arazoak izan dituzte zenbait kurbatan, egin ala kamioek jan eginen bait zuten. Eguraldiak ere ez die gehiegi lagundu. Honekin loturik, hemendik aintzina Diputazioak ez du bidea sekade-

rotaraino bertzerik moldatuko, gainerakoa Udalaren eskutan utziz.

Gazte bilerak

Gazteak biltzen hasiak dira datorren urteko bestak prestatzen hasteko. Aunitzeri denbora aunitz dagoela horretarako irudituko zaie, baina zenbait musika taldek egun libre bakar bat ez dutela garai horretan erran digute.

ZUBIETA

JUAINAS

Herri txikiak amorru haundiak sortzen dituzte? Hori ere asko esatea izan da. Arazoak egoten direla bai, baina ez dut uste izugarriak direnik.

Ihizi txakurrak, esate baterako, artzaiak mugimenduan jarri dituzte, ardiak kaltetzen ari bait ziren. Ez dira, noski, ihiza txakur guztiak, bakar batzuk eta ezagunak baizik. Hori bai, giro berezi bat, ezinegona sortzen da eta artzaiak eskopetekin ikusterik batere arraroa ez da izan.

Eskolako garbitasunak, ere, bereak altxatu ditu. Ohizko urteroko subasta eginik soluzionatua zegoela, Udal sinisturik zegoenean, zas!, Pello sobre bat falsifikatua zegoela konturatu zen. Badi-ra zigorrak, denuntziak eta abarrekoak eskatzen



Artxiboa

dutenek, Udalak horrelakorik egin ez duelako, hango gizonak gizonak ez direla esaten duenak, hagitx agudo juzkatu eta kondenatzen bait dira... Oraingo honetan konkurtso-subastara deitu da!

Heldu den urteko bestak antolatzea hurrengo Udalari dagokio, dena den astirik izan ez duela pentsaturik, oraingoak diru bat presupuestatu du, musikarako, eta zein talde

ekarri behar diren ikusi behar da orain.

Ale hau hilaren 23ko Zubietan egonen delakoan, Azaroaren 25erako bilera batetara deitzen da hemendik. Afera: Ama Birjinetako musikaruen kontratazioa. Tokia, Errandoneako komedorea, atsaldeko bostetan.

Interesa duten guztiak agertzea behar beharrezkoa da, hori bait dugu modu bakarra arazo hau

konpontzeko. Bestalde, orain diren zinegotziak (kontzejalak) jendearen parte hartzerik gabe, musikaruen kontratazio afera beurengan hartzeko prest ez daude, hau da, egin gabea geratuko litzateke, horrek ekar ditzaken ondorioekin. Adineko mugarik ez dago edo, beste modu batez esateko, duzun adina duzuela, eritziaren bat izanez gero ez gero gorde.

ITUREN

Aurtizko bestetan jende ugari

IBAN ISASI

Dudarik gabe egunik jendetsuenak larunbata eta igandea izan ziren, baina gainekoetan ere jende aunitz ibili zen eta izugarri ongi pasatu zuten.

Ortziralean, altxaferuaren ondotik txistulariak eta trikitilariak ibili ziren auzoan zehar, gauez dantzaldia egon zen Jose Angelekin. Honetaz gain, Jon Mikel trikitilaria ostatuz ostatu ibili zen giroa alaituz. Hurrengo egunean dianaren ondotik pilota partiduak egon ziren eta arratsaldean Iturengo dantzari eta trikitixa eskola-koak beren ekitaldia eskeini ziguten. Gauez jende ugari ibili zen auzoan, Akari taldearekin egon zen dantzaldian. Igandean herri kirolean Sunbilla irabazi zuen zubietarren aurka, baina honen aurre-



tik Lesakako bandakoak kontzertua eskeini zuen. Arratsaldean eta trikitilarien ondotik dantzaldia egon zen (gauez bezala) EGAN taldearekin. Astelehenean goizean mus txapelketa eta bertsolariak egon ziren, Argiñarena eta Arozena, hain zuzen. Ondoren bazkari herrikoia Aurtizko soziedadean. Beste bukaera emateko

Martin eta bere trikitilari taldea jotzen egon ziren.

Erran behar da bestetan Aurtizko soziedadea irekia egon zela ostatu moduan. Bertzalde, igandean Nafar Gobernuaren kirol eta gaztedi sailaren zuzendaria den Javier Aztarain egon zela. Dakizuenez, aurreko alean iragarri bait genuen, Aurtizko bestetan Koianea txikia

pilotalekua inauguratzen zen.

Arau subsidiarioak onartuta

Udalak, Ituren eta bere auzoetan etxe bizitzak egiteko norma edo arau subsidiarioak atera zituen ekaina-uztailaren tarte horretan, orain, eta idazkaritzan ikusgai egon eta alegazioak jaso ondoren, onartu egin ziren azkeneko udal bileran.

Irrati lizentzien aurkako mozioa

Azaroaren 7an "orden del dia" delakoaren barruan eta lau ordu iraun zuen bileran aurkeztu zuen Talde Berriak mozio hau, Xorroxin eta Euskalherria irratiei Nafar gobernuak emititzeko frekuentziak eman ez izateagatik protestatzeko. Erabaki hau, ahobatez (TB 5 eta HB 2) onartua izan zen.

SUNBILLA

Ikastola eskolan integratu da

Guraso bilerak hala erabakirik

PATXI PETRIRENA

Ikasturtearen hasierarekin batera gertatutako gauza da, berria beranduxeago ematen badugu ere. Denboran pixko bat atzera eginez, Nafar Gober-

nuaren jarrera hartu behar da kontutan, 1990 urte hau bait zuen jarria muga bezala ikastolak legalizatu edo isteko. Kinka horretan, azken urteetan ere subentziorik izenen ote zuen ziurtasunik gabe,

ostatu, rifa eta abarren bidez atera da aintzina, aurtengoa subentziorik gabe egiteko adina diru ere bazegoelarik. Baina bilera batean, Diputazioko ordezkaria, Ikastolen Federaziokoa eta bertakoak

zeudelarik, bi lehenbizikoek integrazioa proposatu zuten, eta ikastolako gurasoen bileran ia denak horren aldeko agertu zi-



(bertze aldean segitzen du)

ren. Ondorioz, ikastolak biltzen zituen 3 urteko haurrak eskolan dira dagoeneko. Jakina da eskolan D eredua edo euskara hutsekoa segitzen dela.

Aipatutako gurasoen bileran, momentu honetan dagoen dirua zertarako edo nola erabili komentatu zen, milioiren bat t'ardi edo gelditzen bait da. Aipatutako gauzen artean, liburu eta bertze zenbait material erostea, umeei ateraldi bat egitea edota



beharrean aurki daitekeen Erriberako ikastolaren

bati laguntza ematea hartu ziren ontzat.

Turismotik laguntzak

Baserriak jendea hartzeko egokitzeagatik eskuratzeko ahal diren laguntzen berri eman zuten Diputaziotik Urrian. Hamar urtez urtean guttienez 4 hilabetez gelak alokatzeko kondizioarekin, obraren %25a beteko luke laguntzak. %60ko laguntza ere izaten ahal du Nekazaritza sailetik, nekazal aseturua ordaindu eta lehen dedikazioa hori duenak.

DONEZTEBE

Udaletako eta Osasun Etxeko langileak euskara klasetan

TXEMA ALDABE

Aintzineko alean Udalek beren langileak euskalduntze - alfabetatzeko plangintza onetsi zutela aipatzen baguen, oraingoan plangintza hori gauzatzen hasia dela da aipatu beharrekoa. Azkenean eman da ezinbertzeko pausu hori, burutzea bakarrik falta da orain.

Malerrekako Udal eta Osasun Etxeko 26 lagun hortxe ari dira euskara ikasten. Hauetaz gain 4 etortzen dira Elizondotik asteen 5 egunez. Klaseak Malerrekako Euskaltegian (IKA) ematen dituzte 4 taldetan banaturik.

Erran behar da ere, bertze 32 lagunek ematen dituztela Euskaltegi honetan, maila ezberdinetan. Denori animoak.

Musika eskola martxan

Urriaren lehenbiziko asteen hasi ziren 133en bat lagun Doneztebeko musika eskolan. Aurten hasi direnak 22 dira, solfeo bakarrik ematen. Bertze gainerakoak, solfeo eta tresnaren bat jotzen dute.

Herri guztietako jendea dago eskola honetan, erdiak Doneztebekoak. Hilabetean pagatu beharreko matrikula 5.000 pztakoa da eta solfeo bakarria duenak 2.500.

Aurtengoan Doneztebeko Udalak 3 milioiko dirulaguntza, pianoa erosi eta ikasleei liburu bat emanen die, bertan ebaulaketak agertzeko.

Bertzalde, korala, pianoko 5. eta 6. maila eta armonia badela ere aipatu.

Xabalte hil zaigu

Francisco zen bere karnetako izena, baina bere etxearen izenaz ezagutzen genuen. Nork ez du ezagutuko larunbatetan arratsaldero Doneztebeko elizatarian gazta saltzaile konkor hura? Nork ez ditu ezagutuko bere xeibrekeriak, umore eta hitzjariora? Nork ez bere Citroen zahar harekin tar tar, mantso

mantso? Nork ekarriko digu orain marrukak egiteko gazta biguna? Duela gutti, gida karneta kendu baino lehentxeago erran omen zuen hilen litzatekeela bere lan hori kendu edo utzieraziko baliote. Horixe gertatu da, ematen ez bazuen ere 80 urte zituen. Ez da erraxa izanen jendearekiko abilezi hori bertze norbaitek betetzea.



BAZTAN

Ardura haundia kultur ekintza faltagatik

Iaz egiten ziren igandetako dantzaldiak ez dira aurten ospatuko

MAÑONE

Herriko Etxean egini-ko azken plenoan, Herri Batasunak mozio bat aurkeztu zuen, Udalak El Pilar zinema maizterratze-ko edo alkilatze-ko eta neguan, dantzaldiak antolatze-ko eskatuz.

HBko zinegotziek erran zutenenez *"gurasoek arduratuta daude, asteburuetan ekintzarik ez dire-lako egiten gazteentzat"*. Mozioan eskatzen zen ere *"kultur talde eta ostalarie-kin negoziazioak hastera, aurrekontua bete eta koordinatzeko"*.

Union Baztanesako zinegotziek, ez zuten pre-miazkotzat hartu gaia eta erran zuten ere *"zenbait gauza progamatuta dau-de"*.

Baztango Herri Bata-sunarentzat, *"beurek ez daukate gazteei interesa-tzen zaizkien aktibitate-rik eta hauek bailaratik kan-po bilatzen dituzte. Gera-tzen direnak, ostatutan habesten dira"*.

Azken hamarkada



hauetan, kultur ekintzak edo zinema emanaldiak, kultur edo kirol talde eta elkarteen eskutan egon dira, Udal-subentziorik jaso gabe.

Iazko neguan, Elizon-doko ostatuak igandetan dantzaldiak antolatu zituz-ten, Udalaren lagun-tzarekin. Horrela, gazte-txoak bertan geratzen zi-ren. Aurten, arazoak sortu dira eta Udalaren laguntza haundiagoa beharko zen.

UBk Almandoz-tarrei kasurik ez

Baztango Udaleko ple-noak, Union Baztanesa taldearen 8 aldeko botue-kin eta Baztango Alkarta-suna eta Herri Batasuna-ren aurkako 3 botuekin Almandozko herritarrek *"ur ekarpenaren proiektua beharrezkoa ez dela"* adierazten duten eritziari kasurik ez egitea erabaki zuen.

Almandozko 39 herri-

tarren ustez, *"altenatiba merkeago eta hobeak ba-daude, adibidez ur ekar-pen naturalak edo iturrie-tatik eginikoak, proiektu-an agertzen den bon-beoa alde batera utzi"*.

Udala etxebizitza publikoen aurka

Hala dio, behinipein Baztango Talde sozialis-tak, *"Union Baztanesak, hain garrantzitsu den gai batetan interesik ez duela"* salatuz.

Es kisaroi
jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

IPINGI

ARROPAK, TELAK, OPARIAK ETA
ESKULANGINTZARAKO MATERIALEA
Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

Gure herriaren etorkizuna beltza

MARGARI eta KORO

Azken hauetan beldur-
tuak gara pentsatzen zein
izango den gure herri-
hunen etorkizuna, gero eta
jende guttiago gelditzen
bait gara.

Duela sei edo zazpi
urte 330 lagun bizi bagin-
nen, orain ez gara ez hiru-
rehunetara ere ailegatzen.
Hau hola izateko badire
aunitz motibu: lehenbizi-
ko eta haundiena, hemen
ez dela deus gazteak lan-
nean aritzeko (betiko la-
brantza eta bentetatik
aparte, baina hau...),
gero mutil aunitz ez dire-
lako ezkontzen (eta hori
ez direlarik mutiko txarrak
preziski), neskak berri-
z, ezkondu eta kanporat joa-



Artxiboa

ten direlako bizitzera, eta
hemen ezkontzen direnak
gero eta ume guttiago
egiten dituzte (toki guztie-
tan bezala).

1.990 pasatuxea dugun
urte huntan adibidez, haur
bat bakarrik sortu da he-
rrian, ezkontza bat bakarra
izan da eta, bertalalde, 5

lagun hil dire. Pentsa...

Igeriketak

Dakizuen bezala, he-
men ez dugu ez hondar-
tzarik eta ez igeri - leku-
rik bainan igeri egitea
behartsua ikusten delako,
Zugarramurdi eta Urdazu-
biko maestru eta Gura-
soen elkarteak antolatuta
haurrak soinketa edo gim-
nasiako ordua bezala joa-
ten dire Zuraideko piszi-
narat, igerika ikastera.

Denak batean ezin di-
relako joan, lehenik tti-
kiak hasi dire eta gero
izanen da mutil eta neska
kozkorren txanda.

Igeriketa klase hauek,
ortziraletan egiten dira,
goizeko 11etan Dantxari-
neko autobusa hartuz.



SUMINISTROS YANCI

<<GODIN>> Tximiniak eta berogailuak
BAINUAK ETA MOBLERIA
<<PORCELANOSA>> eta <<VENIS>>
zeramikak

Zaldubia industri poligonoan
Tfnoa.: (948) 580 109 **IRURITA**



Argazkiak, Bideoa, Markoak
ELIZONDO TF: 58 04 91
DONEZTEBE TF: 4503 64


Publizitaterik onena preziorik tikienean

Zure iragarkiak Bortzirriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan, Leitza, Goizueta, Zugarramurdi,
Sara eta bertze hainbertze herritara zabaldu nahi badituzu, deitu 63 11 88 Telefonora

LEITZA

Trenbidea pasealeku egiteko proiektuak aurrera darrai

47 alegazio aurkeztu dizkiote Leitzan bertan



Antton

ANTTON

Trenbide zaharra pasealeku, turismo bide egin nahi dute. Hasieran hori entzun izan zenean, fantasia hutsa zirudien. Papere-tan jarri baina sekula burutzen ez diren amets horietatik. Baina, ez.

Aurrera doa proiektua. Eta laister espropiaziokin hastekoak dira.

Proiektua Irurtzundik Leitzara dator, lehengo Plazaolaren bidetik. Herri batzutan kanping, ostatu eta atsedan lekuak eraiki-ko dira, lehengo estazio zaharrak aprobetxatuz. Leitzeko parajetan sarturik, pasealekuak trenbidea uzten du, Eliza parean, eta Santakrutzera igotzen da, goian "atseden leku" bat

jarriz. Hala dio proiektuak.

Turismo bide berri hau: oinez, bizikletaz edo zaldiz ibiltzeko soilik izanen litzateke, sei metrota-ko zabalera izanen luke eta gainera 25 metrotan

bere eskuinera eta beste 25 metrotan bere ezkerre-tara "eremu babestua" izanen da, hau da, ikutzerik izanen ez diren terrenoak baimen berezi bat gabe.

Leitzan bertan berrogeitazazpi alegazio aurkeztu dizkiote proiektu honi, batipat baserri bide batzuk mozten dituelako, edo Santakruzeko ideia gehiegizkoa, "pasada" iduritzen delako.

Mikel Laboa

Jakin izan dugunez, Mikel Laboaren kantaldi bat prestatzen ari dira laister Leitzerako. Abeslari beterano honek baieztatu hitza emana omen du. Seguraski abendurako izanen litzateke, eta IKAS-

TARIk antolatzen du.


Lau "objetore" berri

Soldaduskarako egin berri den zozketaren aurretik, lau leitzar gaztek "kontzientzi objezioa" edo eragozpena adierazi dute. Lehendik ere beste sei objetore bederen bazeuden Leitzeko herrian.

Sendagile pediatria eskatzen da

Bada sei hilabete pediatria baten kontsulta Osasun Zentrorako onartu zela, baina oraindik ez da martxan jarri.

Bestalde, osasun en-kesta bat burutzen ari da egun hauetan.



Egunoro, hitz eta pitz, bidez bide, ttipi tlapa

Antton

Ez da lortzen komunalei buruzko akordiorik

ESTEBAN AROZENA

Nafarroako beste herri askoren antzera, komuna-
lek suposatzen duten ara-
zoari irtenbidea bilatu na-
hian, duela egun batzuk
zinegotziak eta Komunal
"jabeen" ordezkariak bil-
du ziren. Lehen elkarriz-
keta honetan ez zen inolako
akordiorik lortu; areago,
han entzundakoaren
arabera ez da erraza izan-
go berriz mahai berean
esertzea egun horretan el-
karrekin zirenak. Labur-
pen bat eginez aipa deza-
gun, 1966. urtean Goizue-
tan hartutako erabakia
erreibindikatzeko dutela
komisikoei, hau da %80a
lurraren "jabearentzat" eta
%20a Udalari entregatu.



Nafarroako parlamentuak
onartutako legeak, guztiz
alderantziz egitea agintzen
du lur hauen banaketan.

Udal ordezkariak bes-
talde, ez zuten inolako
proposamenarik luzatu
portzentaiari dagokionez
behintzat. Hala ere, alka-
teak garbi utzi zuen ez

duela berea egingo komi-
siokoen eskeintza, diputa-
zioak onartuko ez duela
dakielako. Komunal ja-
beak oso haserre mintzatu
ziren postura hau entzun-
dakoan eta hainbat irain
sortu eta arrazoi txar ere
entzun ziren Udaletxeko
pleno aretoan.

Futbito Txapelketa

3. edizioa bukatu be-
rria bada ere, azaroaren
azkenean edizio berri bat
martxan jartzeko asmotan
daude. Txapelketarako,
3.500 pezetakako inskrip-
zioa ordaindu beharko da
eta partidua larunbata
arratsaldetan jokatu-
ko dira. Antolatzaile diren
Antton eta Mikelek ziote-
nez, ez daude oso pozik
Udalaren laguntzarekin.
Azken txapelketa hasi au-
rretik bi eskaera luzatu
omen zizkieten kultur-
kontzejalari: pilota plaza-
ko argiak konpontzeko eta
porteri berriak egiteko.
Erantzuna baiezkua izan
bazen ere, oraindik ez
baita deus berritu.

SARA

Pala lehiaketarako izen emateak zabalik

OLAIN ELKARTEA

Urte guziz bezala, Sa-
rako Trinketak antolatzen
du Pala lehiaketa bat hiru
sailetan. Izen emateak
zabalik dira abenduaren
lehena arte deituz zenba-
ki huntara: 59-54-22-06.

Sarako Usategiak

San Martinak baino
egun batzu lehenago, jau-
tsi dira usazaleak. Aurten
ere, aintzineko urteetan
bezalatsuko urtea izan da
erran nahi baita, frango
txarra. Berriki egindako

erreportaian agertze beza-
la, ihizia Saran ere beti
behitituz joaiki da 1960tik
hunat. Halere, hogoi bat
partaidek osatzen duten
sozietate batek atxikitzen
du bizirik menderen men-
deetan iraun duen ihizi
ohidura hau.

Euskal ikasgaiak

Joan den Azaroaren
Sean abiatu dira kurtsoak
Gaztetxean. Jadanik doze-
na bat ikasle badira bainan
ez da berantegi izenen
izena emateko deituz zen-
baki huntara: 59542519.



URDAZUBI

Ospatu zen Urdazubiko gazteen besta - txikia

ALIZIA OLAIZOLA

Joan den Azaroaren 3an footballtxo edo futbito partidu bat gazteekin jokatu zen, gazteenak zaharren aurka, Urdazubiko frontoian.

Zaharrenak irabazleak gertatu ziren. Partidu hau arrunt zirraragarria izan zen, hasi zen gaueko 9etan eta 10ak arte gure jokalaririk ezerdia atera zuten. Partidu hau, bideoan grabatua izana da, espero dugu Indiano - Baitan noizbait ikustea, zeren eta arrunt interesagarria izanen da (hori uste dugu behinpehin).

Honen ondoren, afaria Armua jatetxean, gazte guztiak eta ezkondu batzurekin, denetara 70en bat lagun izan ziren gutxi gora behera, gero animazio haundia izan zen Modestorekin, goizeko bostak arte.



Footballtxo partiduaren jokalariek

Izan zen baita, istripu txiki bat, denak dantzan ari zirenenan, krax! gazte baten betaurreko pareta lurrera erori bait zitzaizkion, (J.M.) ez zaitela kexa badira hainbeste salgai dendetan; eta horrela bukatu zen gure besta txiki hau.

• Joan den Urriaren 15ean, jantzigintza ikastaroari hasiera eman zitzaion, hogeik ikasleek parte hartzen dutelarik bertan. Guzti hauen irakaslea, Urdazubiko Anastasi Bidart da.

Aurten, Udalak utzi diete toki bat herriko e-

txean ikastaro hau emateko.

• Joan den urtean egin zuten bezala, aurten ere eskolako haurrak Ustari-tzeko igerilekura joaten dira astean behin, igerian hobekiago ikasteko intenzioarekin.



Ezkontzetako erreportaiak
Argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55
Santiago 40
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan
AMAIUR Tfnoa: 45 30 00

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel Guereñdiain

SARA - LAPURDI

ATERPE jatetxea

Mendi ibilaldietarako
Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
tfnoa: 63 41 79

ARANTZA

EZKONTZAK

Francisco Javier Guenbe Eguino eta **Ana Maria Telletxea Mayo**, Artajona eta Berkeley (Californiakoa), Urriaren 12an.

Didier Marcel Faure eta **Pantxika Ahorga**, Sarakoak, Azilaren 17an.

Melik Juan Maumy eta **Hassina Brighlet**, Sarakoak, Urriaren 26an.

Antonio Rodriguez eta **Tere Bereau Larretxea** Berakoa eta Arantzakoa, Azaroaren 10ean.

Pedro M. Sagastibeltza Billabona eta **Margarita Bengoetxea Lasarte**, Leitzeta eta Alegikoa, Azaroaren 17an.

Juan Mari Olaizola Azpiroz eta **Mari Sol Otxoteko Portu**, Goizuetakoa eta Lesakakoa, Azaroaren 17an.

Jose Lastiri Manterola eta **Maria Nieves Etxeberria Agirre**, Sunbillakoa, urriaren 24ean.

JAIOTZAK

Tiphaine Zunda, Saran, Azilaren 5ean.

Jon Alzuri Otxoteko, Arantzan, Azaroaren 4ean.

Usoa Andueza Igoa, Beran, Urriaren 29an.

Jaime Sein Osinaga, Donezteben, azaroaren 5ean.

Iñaki Iruretagoiena Arregi, Donezteben, azaroaren 9an.

Itziar Bertiz Baleztena, Donezteben, urriaren 29an.

HERIOTZAK

Maria Bautista Altzugarai Irigorri, Lesakakoa, Urriaren 18an, 82 urte.

Francisco Etxaide, Urdazubin Irailaren 23an, 77 urte.

Bittor Goia, Berakoa, Urriaren 10ean, 68 urte.

Isidora Urrutia, Sarakoa, Urriaren 26ean, 71 urte.

Antoine Roth, Sarakoa, Urriaren 31an, 69 urte.

Lucas Almandoz, Arantzakoa, Azaroaren 12an.

Jose Adin Iribarren, Elizondon, azaroaren 3an, 93 urte.

Jose Antonio Bidarte Mariezkurrena, Elizondon, azaroaren 12an, 24 urte.

"Xabalte" Fco. Etxandi Almandoz, Donamarian, azaroaren 14ean, 80 urte.



BAZTAN BIDASOA MALERREKA ULTZAMA

- Aipaturiko leku hauetan, etxe, baserri, apartamentu, apartahotel, bajera komertzial, garaje, eremua duten bordak, etxeak eraikitzeke orubeak, pabiloiak e.a saldu eta alkatatzen ditugu.
- Zure etxearen moldaketarako behar dituzun aurrekontu eta tasazioak, debalde egiten ditugu.
- Viajes Ecuador-ekin, modu guzietako bidaien aurrekontuak debalde egiten ditugu; baita aseguro ezberdinenak La Estrella aseguro etxearekin.
- Detektibe-pribatua eta finantz-kontsultetarako bulegoa ere eskeintzen dizugu

INFORMAZIOA:

Ezkalo Jauna
Tfnoa: 45 00 54
Doneztebe

Informazioa:

IRUN: POLO Agentzia, (943) 62 92 63
DONOSTIA: Sta. CATALINA Agentzia, (943) 28 45 00
LASARTE: EKOS Agentzia, (943) 36 21 68
IRUÑEA: BIDASOA Agentzia (948) 23 60 24

Berriemailearen bakardadea

(Edo zer egin paper txuriaren aurrean)

Herri edo hiri txikiren baten berriak idazteak buruhausterik ez duela emanen pentsatzen baldin baduzue, eta seguraski horrela izanen da, arras nahasiak zaudete, idearik ere ez duzue, kanpotik erraza ikusten da dena, etabar..., letania ez luzatzea hobe izanen bait da...

Hartu TTAPI-TTAPA bat eta herriz-herri agertzen di-

ren berriak irakur ezazue. Batzu ofizialtasun antzeko zerbaitetan oinarritzen dira -berriemaileak, agian- bertzeek alderantzizko ohitura dutelarik; hagitz seriozki idazten dutenak badira, berri serioena irrifarrez ematen duena dagoen bezala; nork hizkuntza maila gogorra erabiltzen duena, bertze puntako ohituraz aritzen dena dagoen antzera... Behin baino gehiagotan berdintzen saiatu gara, ondarrean, bakoitzari ateratzen zaion bezala aritzea erabakitzeke...

Baina estiloarena bertze batendako utzirik, berriemailearen lanaren zailtasunara lotuko gara.

Denbora! Hamabortz egun deus ez dira idatzi garaian, eta sobera lehen-dabizikotik zer kontatu duzunean, zaharkitua gelditzen bait da. Nola jarri berritzat gaur hamalau egun izandakoa? Denboratik aparte: holako desioa betetzeko asmoa zutenek lortu dute azkenean, ari dira jo ta fuego... Beno, hori konpondu dugu!

Eta berriagertzen edo gauzatzen ari denean? Gertatutzat eman? "Etor-kizunismora" jokatu? Arriskutsua!... Bordako Joxek hau ta hori ta hura eginen zuela erran balu ere, hau ta hori ez du lortu eta hura betetzeko gorriak pasatuko ditu, ez ailegatzeko, gainera, nere iduriz!

Iduria, uy - uy - uy ama! Guré mundu honetan zerbaitekin kontuz ari behar badugu iduriarekin da. Hik zer erraten huken? Hura ez



Roman Harribilaga (Bera)



Jon Larretxea (Arantza)



Iban Isasi (Ituren)



Juainas Paul (Zubieta)



Margari E. (Zugarramurdi)



Mixel Gerendain (Sara)



Josetxo Susperregi (Musika)



Pello Astiz (erredakzioa)

nukela beteko nik? Hi zer hiaiz? Zer behar duk?

Izen propioak ez aipatzea onena genuke, errazena, baina Karmelen amak, bertze irakurle gehienek bezala, eskatzen ditu... Kronika-de-soziedad mai-

te bait dute izugarri... Izugarria izan leike benetan, baina bertzalde, hagitz polita... Ez dakit nungo Mari K... arront ongi ari da. Ikaragarriak egin ditu eta hainbertze lortu du!

Eta berri txarrak dire-



Oskar Txoperena (Igantzi)




Pello Apezetxea (Etxalar)



Patxi Petrirena (Sunbilla)



Txema Aldabe (Doneztebe)



Antton Erkizia (Leitza)



Es'eban Arozena (Goizueta)



Z. Karraskedo-Mañone (Baztan)




Koro Irazoki (Zugarramurdi)



Alizia Olaizola (Urdazubi)




Mattari Altzuarte (kirolak)



Fermin Altzuguren (Astrologia)



Patxi Larretxea (erredakzioa)




Aitor Arozena (erredakzioa)



M. Karmele Tolosa (publizitatea)



Joxemanuel Irigoien (erredakz)



nean? Nahitanahiez eman behar al dira? Eta berriaren mamia zurrumurruz inguraturik datorrenean? Gehiago! Berria bera zurrumurrua denean? TTPI - TTAPA-ren berriemaileek "azterketako kazetariak"

garela uste al duzue?

Eginez lortzen omen da kriterioa, baliteke, baina ez automatikoa, nere kasuan bederen.

Ez zaituztet gehiago aspertuko! Baina, zenbat mutur beltz, adiosaren

ukazioak hori erran duzulako, bertzea erran beharrean... edota hain garrantzitsua dena ez duzulako aipatu, nola jokatu behar da? Bitakon bat: TTPI-TTAPAK estilo liburua argitaratzen du ala berrie-

maileen "soldata" arrisku-plusaz hornitzen du... Hango hark erraten zuena: Zer uste zenun zela berrik ematea alkiari eserita papera jotzea... Hainbertze ale eta gero, hau!



Azaroaren leko zabalkunde datuak herriz-herri:

GUZIRA: 3.327 ale BAZTAN: 398

Amaiur: 34
Arizkun: 29
Anitz: 6
Almandotz: 12
Arraiotz: 15
Azpilkueta: 7
Berroeta: 4
Elizondo: 150
Erratzu: 33
Gartzain: 15
Irurita: 35
Lekarotz: 16
Oronotz-Mugaire: 34
Ziga: 8

MALERREKA: 584

Beintza-Labaien: 28
Donamaria: 30
Doneztebe: 115
Elgorriaga: 29
Ezkurra: 25
Eratsun: 33
Ituren: 117
Oitz: 12
Urrotz: 16
Saldias: 28
Sunbilla: 85
Zubieta: 51

BERTIZARANA: 59

Legasa: 44
Narbarte: 15

BORTZIRIAK: 1.210

Arantza: 151
Bera: 490
Etxalar: 128
Igantzi: 130
Lesaka: 311
LEITZA: 343
GOIZUETA: 69
ZUGARRAMURDI: 30
URDAZUBI: 35
SARA: 30
Nafarroako herriak: 292
Gipuzkoa: 211
Iparraldea: 13
Araba: 35
Bizkaia: 33

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

- ✓ Bertakoa
- ✓ Erraz
entenditzeko
modukoa
- ✓ Herri
osoarentzat
eginikoa

ttipi-ttapak antolaturik**I. NARRAZIO LABUR, KOMIKI ETA ARGAZKI LEHIAKETA**

1. ***ttipi-ttapak***, gure inguruan euskaraz egindako literatura eta komiki produkzioa alde batetik eta bertetik argazkigintza bultzatu nahirik, 60.000 pezetako sariez hornitutako lehiaketa antolatu du. Lehiaketa, aipaturiko 3 sailetan banatzen da: Narrazio Labur, Komikia eta Argazkia.

2. Sailak, gaiak eta arauak:● **NARRAZIO LABURRA****GAIAK** :EROTIKOAK, HISTORIKOAK, BELTZAK...**BALDINTZAK**:

- a) Euskaraz idatzita egotea.
- b) Jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izatea.
- d) Gehienez lau orrialde, bi espaziotara eta paperaren alde batetik idatzita.

● **KOMIKIA****GAIA**: LIBREA**BALDINTZAK**:

- a) Formatoa: Folio tamainan edota neurri horrekin portzioa daukan paperetan.
- b) Modalitateak: • Zuri-beltzean; • Koloretan.

● **ARGAZKIA****GAIA**: TTIPI-TTAPAREN INFORMAZIO-EREMUA ETA BERE JENDEAK.**BALDINTZAK**:

- a) Formatoa: 18 x 24 zm.
- b) Modalitateak: • Zuri-beltzean; • Koloretan.

3. AURKEZPENA:

a) Lanak ***ttipi-ttapako*** bulegoetan aurkeztuko dira **1991eko urtarrilaren 30a baino lehen.**

b) Izengoiti batez sinatuak aurkeztuko dira. Aparteko sobre itxi batetan, azalean lanean jarritako izenorde bera idatzita daukala, egilearen izena, helbidea eta telefonoa jarriko dira.

4. SAIL ETA MODALITATE EZBERDINEN SARIAK:

a) Narrazio laburrean: 15.000

b) Komikian: 15.000

d) Argazkian:

Koloretan: 15.000

Zuri-beltzean: 15.000

e) Sari hauez aparte, epaimahaiak 10.000 pezetako 3 aipamen berezi emateko aukera izanen du, sail bakoitzean bana.

5. Epaimahaia, lehiaketaren gai-ezberdinetan adituak diren lagunez osatuko da.

6. Saritutako lanak ***ttipi-ttaparen*** esku geldituko dira. ***ttipi-ttapak***, lehiaketa bera ezagutarazteko helburuarekin, aurkeztutako lan guziekin erakusketa bat antolatze-ko eskubidea beretzat gordetzen du; egilearen izena argi eta garbi aipatuz beti ere.

7. Antolatzaileek, oinarri hauetan aurrikusten ez den/diren ustegabekoak erabakitze-ko ahalmena beretzat gordetzen dute.

8. Lehiaketan parte hartzen duten pertsona guziek arau hauek onartzen dituzte eta sort daitekeen edozein arazoren aintzinean antolatzaileen erabakietara lotuko dira.

Oinarri hauetan nahikoa argitzen ez den zerbait balego, deitu (948) 63 11 88 Tfnoa.

Azaroaren 25ean Baztan - Bidasoako Mendigoizaleen



Berako Larun Mendi Taldekoak



Mendigoizaleak badi-rudi gogor xamar daudela, beti martxan ibiltzeko gogoarekin eta Anirako irteera ezin hobe atera zenez, beraien artean harremanak estutzeko eta ahal bezain ongi pasatzeko, II. Mendigoizaleen Eguna ospatuko dute Elizondon, joan den urtean Beran ospatu zenaren jarraipen bezala.

Azaroaren 25ean, goizeko zortzi terdietan Leitzaran, Malerreka, Bortzirak eta Baztango mendigoizaleak Elizondoko plazan elkartuko dira mendiko irteera bat egiteko asmoarekin, Legate eta hainbat mendietan barrena ibili eta ondoren Otsondora

iritsiko dira, autobus batek Elizondora ekarriko dituelarik.

Ondotik bazkari eder bat izanen dute kirol eta mendizale bikain hauek.

Gogoratu beharda ehun eta hoge mendigoizaletik goiti bildu zirela joan den urtean Beran ospatutako egunean.

TTIPI - TTAPAK Baztan Bidasoako kirol elkarteen historia argitaratzeko asmoa

TTIPI - TTAPA aldizkaria egunetik egunera bere urratsak finkatzen ari den bezala, gure eskualdean ditugun kirol elkarten informaziorik zehatzena

finkatzea ere nahiko genuke.

Horretarako, Elkarte guztiei dei egiten diegu beraien historia (noiz sortu ziren, nortzuk, zein asmoekin, etabar...), oraingo egoera zertan den (zenbat talde dituzten, zein mailetan jokatzen duten, nola dagoen egituratua elkarte, etabar...) eta etorkizuneko dituzten asmoak (helburuak, inperialazioen ideiak, etabar...), idatz dezatela hemen banan bana hamabortzero kirol-sail honetan argitara dezagun.

Idea honekin lortu nahiko zen helburua zera izan: litzateke: elkarte bakoitzean ixileko lan gogor eta ikusten ez den horietan

ari diren eta dauden jendeak denok ezagutzea eta elkarte horiek mantentzeko eta aurrera ateratzeko egin behar diren lanen eta pertsonen berri eta informazioa ematea.

Horrela bada, aukera ederra dago denak denon berri izateko eta denok elkarren artean hobekixea-go ezagutzeko.

Aipatzekoa, baita ere, talde bakoitzari argazki roilo bat bidaliko zaiola.

Beraz, zure talde edo elkarte TTIPI - TTAPA ikusi nahi baduzue, deitu 63 70 05 tfnora. (Mattari) edo 631188 tfnora.

MATTARI ALTZUARTE

Eskubaloia



Bortzirak K.E.ko jubenil eskubaloia taldearen neskek, bigarren urtez dihardute gogor entrenatzen.



Jubenilen eskubaloia taldeak, maila ona erakusten ari da, joan den astean "liderrari" ere irabazi egin bait zion.



Bortzirak K.E.ko kadete eskubaloia taldea; esperientzi falta nabaritzen ari da lehendabiziko saioetan.



Nesken kadete taldeak ere, erakutsi nahi du badutela zer erranik kirolaren munduan.



Guzi hauen
zerbitzura gaude

koxka

KOXKA NAVARRA, S.A.

ZERBITZU TEKNIKOA

BERAN:

63 08 98 Tfnoan.

IRUÑEAN:

26 64 11 Tfnoan.


Bittiria, 6 Tfnoa: 637410 -

Nerea

Cinetakoak

San Miguel 2,
DONEZTEBE

Bihotzeko infartoa



Gaur, laburbildurik, infartoa lehenbailehen tratatzeko, kontutan hartu behar diren sintomak azaldu-

ko ditugu.

BULARREKO OINAZEA da sintomarik garrantzitsuen eta gaixoa

kontsultara ailegatzen da "norbaitek bultzatuko balio bezala" bularra mindura duelarik eta eragozpen edo molestia hau, besotik (normalean ezkerreko besoa) korritzen diola erranez. Bertze batzutan, ordea, oinazeak lepora edo eskuineko besora zabaltzen dira, baita sabel edo estomakara ere.

Auniztan, ahalegin bat egiten ari garenean gertatzen da oinazea, lana utzi eta atsedena hartzerakoan arindu egiten delarik.

Agertu dugun sintoma hauek infartoa agertzeko modurik arruntenak badira ere, kontutan izan behar ditugu alditan agertzen diren modu arraroagoak, batzutan gaixoa eta senda-

gilea bera engainatzen dituztenak. Honako hauek dira:

- Arnasa edo hatsa hartzeko zailtasuna, normalean bularreko molestiaz lagundurik.
- Oinazea edo molestia lepo inguruan.
- Oinazea edo molestia beso baten inguruan.
- Oinazea edo molestia eskumuturren inguruan.
- Oinazea bizkarraren inguruan.
- Oinazea sabela edo estomakaren inguruan.

Tratamenduaren efikazia, gaixoa tratatzeko bizkortasunaren araberakoa izanen da.

Bertze artikuluetan, gaixotasun honen arazoetatik **BENEDICTO CASARE** beharreko neurritaz arituko gara.



«ZALDUBI»
SUKALDE
MOBLEAK

Altzari fabrikazioa eta
muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN



JAURENA

Sukalde mobleak - elektrogailuak
Rikardo Baroja 12, Tfnoa: 63 07 60 - **BERA**

Horoskopoa

Sagitario,... "Zentauroa"

CRONOS - Saturnok ume pil bat egin zituen, gehienak izaki arraro batzu. Zentauroak ere Cronos-en umeak ziren. Kiron zentauro on eta jakintsua zen. Kironek hezi zituen Akiles eta beste gudari ospetsuak.

Sagitario arketipoa

Sagitario suzko zeinua eta mutablea da. Suzko zeinua izateak ematen dio independentzia, dinamismoa; eta mutabiletasunak berriz, nolabaiteko indezisia, baita egoera ezberdinetara egokitzeko eta eztabaidatzeko ahalmena ere. Zeinu honetako jendeak izugarri aktiboak izaten dira, aunitz gustatzen zaie kirola, etxetik ateratzea eta aire libreko bizia.

Zentauro iduria oso adierazgarria da: erdi gizona erdi aberrea. Sinbolo honek adierazten du gizo-



nak dauzkan bi zatiak: bat edozein bertze aziendak bezalakoa, beraien behar berekin, horretaz gain, giza

zatiaren bidez, jakintasuna ere badauka. Jakintasun honi esker gizonak arkua asmatu du eta honen bidez gezia zerura jaurti dezake,

hau da, goi mailako jakinduria lortu edo espirituarekin konektatu.

Bidai luzeak, goi mailako ikasketak, erlijioa, moraltasuna, printzipioak eta horrelako gauzakin erlazionatzen da sagitario eta sagitariotarrak, inor baino gehiago Jakinduria, Legea, etika, erlijiotasuna ulertzeko eta lortzeko bidean daude. Gertatzen da ere horrenbertzeraino ez iristea eta uste izatea beti arrazoi daukagula, fanatikoak izatea, sineskerian erortzea, azaleko erritoari erranahi sakonari baino garrantzi gehiago ematea.

Sagitarioko garaian jaioak baikorrak, umoretsuak, txiste kontalariak, "jeta" xamarak eta hola-koak izaten omen dira. Nere iritziz kualitate hauek ez dira sagitariogandik etortzen, bere regentea den Jupiterrengandik baizik. Gai horretan -planeten eraginaren ondorioz- zentauraren ariko gara.

Zentauraren

San Migel auzoa 27

DONEZTEBE

ARR O P A K

BERRIKI IREKIA
DUGU
ZATOZ
BISITATZERA!
Tfnoa: 450883

Etxebizitzak

• **Lesakan lokal bat** transpasatzen da Arretxea karrikan (Gaia). Tfnoa: 637410

• **Doneztebe** inguruan, 3.200m² duen borda bat salgai. 1.200.000. Tfnoa: 450054.

• **Baserri bat** bere eremuarekin erosiko nuke bertan bizitzeko. Bere egoerakez du ajolik. Tfnoa: (943) 429378.

Lana

• **Delineazio industria-** la ikasi duen 22 urteko neska batek, lan eginen luke bulego batetan. Tfnoa: 450054

• **Gitarra klaseak** ematen dira. Tfnoa: 630217

• **Klinika-auxiliar bat** naiz eta lan egin nahi dut. Tfnoa: 450054

Salerosketak

• **3 behi "suiza"**, onak, beren aretxekin eta 4 hila-betez ernari den miga bat salgai daude. Tfnoa: 630733

• **EBRO traktorea**, 30 CVkoa eta ia berria den belarra pikatzeko diskoa salgai. Tfnoa: 630733.

• **Motoa** saltzen dut, Honda XL Paris Dakar 200.000 pezetatan. 12.000 kilometro ditu. Deitu 637947 tfnora. Akintxo.

• **Buggia** saltzen dut R-12aren motorrarekin. Oso merke. Deitu 637346 tfnora. Tomas Otxoteko.

• **100 bat teila** soberan badituzu gustora hartuko dizkizut. Tfnoa: 637229.

• **Zerra bat**, ez zirkularra erosiko nuke. Juan Bautista Oteiza. 580996 Arraiotz.

• **Behi bat eta bere aretze gorria** saldu nahi ditut. Behia lau urtekoa da. Deitu Zigako 581023 tfnora.

• **Egur eta ikatz sukaldia** salgai. Interesatuak deitu 637984 tfnora.

• **Trikitixa bat** erosiko nuke, bigarren eskukoa. "Zero Sette" serie 3. Deitu 510092 Tfnoa.

• **Hiru euskal-arraza-** ko ardi zakur, hilabete-

koak, salduko nituzke. Nahi dituenak dei dezala 504492 Tfnoa.

• **Aluminiozko orde-** ñadora bat, prezio onean saldu nahi dugu. Guttirabilitakoa da. 634071.

• **Vespa TX200**, ia-ia berria den motoa, NA-Z, 3.000Km, saltzeko daukat prezio onean. Tfnoa: 450115 Doneztebe. Alejandroz galdetu.

Denetarik

• **Ekipoak alokatzen** dira Udalentzat, bertsolarientzat, elkarteentzat, mitinetarako eta abar. Laia musika dendara deitzea bertzerik ez duzu 63 10 59.

• **Belarritako bat gal-** du dut Lesakako Eskolako frontoian. Norbaitek aurkitu badu, eskertuko nioke 635119 Tfnoa deitza. Ainhoa.

• **Beran, negutegiak** jartzeko terrenoa behar dut. Metroko 700 pzta. artio ordainduko nuke. Tfnoa: 450054.

Harremanak

• **"Berako Mireia-** rentzat": Doneztebeko zoko batetik ateritako mutil bat. Zutaz eroturik nago, eta noizbait Lesakako musikan ikusiko bagara ea enrrrollatzen garen. Muxu haundi bat ipurdi haundietan. "Ez moskeatu" Agur.

• **Santi** -Goizuetako mutil begiurdin horreribihotzetik, beti maitatuko diola neska misterioitsu batek, nahiz eta berak inoiz jakin ez. Admiratzen zaituen bat.

• **Mutil batek**, 26-34 urteko neska bat ezagutu nahi luke, berekin ezkontzeko intentzioarekin edo familia osatzekoarekin nahiago baldin baduzu. Tfnoa: 63 11 88.

• **Nere bizitzako muti-** larentzat: Beti izanen zaitut nere bihotzean, eta espero dut, ni baita zure bihotzean izatea. Ikusi arte. C.B.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

.....
.....
.....

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

DENBORAPASA

Lau zatitan puskatuak	Itxoin	Ezin egonean	Pare bat	Alondegiak
Baigorriko	Landare	Alkohol bukaera	Musika nota	Gizonezko guraso
Ur etorri handi				499
Axaleko				Eguzki
Dago		Uranioa	Erakunde armatua	
Egile atzizkia		Duda partikula	Denbora tarte	
		Ekilibrioan		
		Txipiroien salda		
	Zure...	<i>t</i>	<i>t</i>	<i>i</i>
	Bokal errepikatua		<i>p</i>	<i>i</i>
Baztanen, noa				Kontso- nantea
Izan				Nafarroako autoetan
		Bokala		Neona
		Jaingo egyptiarra		Arabako herria
		Röntgen	Umorezko kolpe	
		Nondik atzizkia	Pablo	
Lehena	Aldizkaria!	<i>t</i>	<i>t</i>	<i>a</i>
Kontrako	Gar		<i>p</i>	<i>a</i>
				Bat
				Azkenekoa
		Baztango mendia		
		Musika nota		
Bokal errepikatua		Talde		Potasioa
Errep. Gorotza		51		Artsenikoa
	Aunitz	Urtez!		
	Bokala	Nitrogenoa	<i>L.</i>	<i>A</i>
Abelen anaia gaix- to hura			<i>L</i>	<i>E</i>
			<i>A</i>	<i>A</i>
		Desertuko urtoki		Iodoa

AMAIUR



Vegasa®

sukalde eta bainu altzariak

Rosa Seminario 13 Tfnoa.: (948) 59 44 00
DONEZTEBE